

# Ekonomia feministaren presentzia Bigarren Hezkuntzan



PATRICIA ARTXANKO

(Universidad Pública de Navarra-Nafarroako Unibertsitate Publikoa)

## Sarrera

Artikulu honen bitartez aurkezten dudan ikerketa hau, Bigarren Hezkuntzarako Irakasle Masterraren baitan egindako amaierako ikerketa lanaren moldaketa bat da.<sup>1</sup> Ekonomia Feministak korrante politiko, ekonomiko eta sozial bezala, hezkuntzan duen eragina aztertzekeo dudan arduragatik sortzen da eta zehazki, batxilergo lehenengo mailako *Ekonomia* ikasgaiaren duen influentzia aztertu nahi dut.

Ekonomia Feministaren teoriak gora egin du 70. hamarkadatik aurrera, bai eremu akademikoan baita mugimendu sozial eta politikoetan ere. Mugimendu feministatik eratorritako ekonomialari ezberdinek, gizarte zientzia honi bestelako begirada bat emateko asmo berritzaile batetik sortzen da. Horregatik, azken urteotan, eta krisiaren gorakadarekin batez ere, Ekonomia Feministak planteatzen dituen gai ezberdinak atera dira plazara. Batez ere, ikusgarri dugun ekonomia guztia eusten duten, eta ikus ezinak diren zaintza lanek, berezko garrantzia hartu baitute Europa eta Ipar Ameriketako herrialdeak astindu duten atzeraldi ekonomikoarekin.

Beraz, garrantzitsua iruditzen zait ekarpen hauek *ekonomia* ikasgaiaren ikasten diren edo ez aztertzea. Honi lotuta, gai hauetan ez sakontzeak ekonomia era partzial batean ematen dela adierazten du, eta gaur egun mahai gainera atera diren hainbat arazo baztertzea ekarriko luke. Honenbestez, ekonomia modu anitz eta global batean ulertzeko giltzak ematen ditu Ekonomia Feministak, hortaz, ezinbestekoa ikusten dut, ikasleek ikaskuntza prozesua modu oso batean burutu dezaten, gai eta kontzeptu berritzaile hauen inguruan eztabaidatzea. Gainera, teoria berri honek, generoaren araberako ezberdintasunak ditu abiapuntutzat, hau da, ekonomia ez da neutroa generoari dagokionez, eta horrek ezberdintasunak areagotu dituela du oinarritzat. Izan ere, emakumezkoek historikoki ekonomian hartu duten papera bigarren plano batean utzi eta baliogabetu egin baita. Hau kontuan izanda, Espainiako Estatuak eta Nafar Gobernuak adostutako *curriculum*-ean, generoaren araberako berdintasuna bermatzea zeharkako gaia bada, generoaren araberako berdintasunean hezteko, premiazkoa da *ekonomia* ikasgaiaren Ekonomia Feministatik egin diren

ekarpenak sartzea. Bestalde, ikasleen jarrera kritikoa bultzatzea ere curriculum-ean agertzen diren helburuetako bat da. Era berean, ekonomia etengabeko eztabaidan dagoen zientzia dugu, hortaz, gaur egun eztabaida horretan parte hartzen ari diren ikuspegi ezberdinen ekarpenak irakastea eta klasean lantzea nahitaezkoa bilakatzen da, *ekonomia* begiratzeko era ezberdinak erakutsiz, euren ezagutza aberastuko dutelako eta kritika egiteko aukera gehiago izanen dituztelako.

Bistan da Ekonomia Feministak zeresana duela batxilergo lehenengo mailako ikasleen ikaskuntza prozesuan, eta horregatik, interesgarria iruditzen zait teoria honetatik egindako ekarpenak ikasten diren edo ez aztertzea. Horretarako, Iruñeko ikasle eta irakasle batzuk honen inguruan duten harrera ezagutu nahi nuen eta bide horretan, ikasleei galdetegi bat pasatu nien baita irakasleekin elkarrizketak hitzartu nituen ere. Modu honetan, ikuspegi global bat lortzeko xedearekin, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan parte hartzen duten pertsonak aztertu nituen, ikasleek bere aldetik ezagutza jasotzen duten subjektu bezala eta irakasleek, ikaskuntza prozesuan duten garrantziagatik hain zuzen ere. Lortutako emaitzek, agerian utziko dute gaur egungo ikasleek zer nolako ezagutza jasotzen duten ekonomiari dagokionez, eta curriculum-ean eskatzen diren minimo batzuk betetzen diren edo ez ikusiko da. Hala ere, kontuan izan behar da, ikerketa burutzerako orduan erabilitako iturriak mugatuak izan direla eta beraz, ez da esanguratsua, ikasleen zein irakasleen lagin txiki eta homogeen batekin egin baita eta ondorioak ezin dira gizartera estrapolatu. Behintzat, ondorengo orrialdeetan azaltzen den ikerketa, honen inguruko gogoeta eta autokritika bat eragiteko baliagarria izanen dela pentsatzen dut.

## Ekonomia feministara hurbiltzen

### 1.a. Zergatik ekonomia feminista?

Ekonomiaren baitan Ekonomia Feminista deritzon eremu berri baten agerraldia, ekitatearen arazoaren inguruan kezkatuta zeuden garapen teoriko ezberdinen elkargunetik sortu zen. Alde batetik, emakumezkoen menpekotasunean auzi honen adierazpena ikusten zutelako, eta bestetik, emakumezkoen egoera hobetzearen alde zegoen mugimendu politikoak aukera ematen zuelako. Eduki eta analisirako zein ikerketarako marko ezberdinen garapenari tartea emateko eta, bide batez, ekonomiari azalpen ahalmen hobetua eta zabalagoa, tresnak eta feminismoaren jakinduriak eskaintzeko elkartzeko dira ekonomia eta feminismoa.<sup>2</sup>

Ekonomia feministaren historia ia pentsamendu ekonomikoarekin bat garatu izan da, 70. hamarkadatik aurrera indarra hartuz, eta azken urteotan, bai eremu akademikoan baita interbentzio politikorako espazioetan ere garrantzi handiagoa hartzen hasiz. Honenbestez, proposamen analitiko eta metodologiko bat bezala edo sistema ekonomikoa errotik aldatu eta antolatzeko modu ezberdin bat bezala uler dezakegu. *Ekonomia feministaren* etiketa anglosaxoi akademiarekin etorri zen, eta hein handi batean, feminismoaren bigarren olatuari esker eman zen.<sup>3</sup>

Testu honetan zehar «ekonomia feminista»-ren ideia erabiliko dut, hala ere, ekonomiaren gaineko begirada feministen inguruan mintzatzea da zuzenena. Aniztasun handia eskaintzen duten begiradak baitira, alde batetik, ekonomiaren ikuspuntu ezberdinak eta ikuspuntu feminista ezberdinak uztartzen dituelako eta, bestetik, erlatiboki nahiko berria den diskurtsoa delako eta bere *fundamentuen* bilaketan diharduelako. Halaber, etengabeko berrikuspenean eta hausnarketan oinarritzen den perspektiba baten funtsezko ezaugarria dela pentsa daiteke.<sup>4</sup> Ekonomia Feminista prozesu ez lineal bat bezala garatu egin da, etengabeko kritika, birsortze eta lanketan. Hasiera bat izan duen bidea, baina helmuga konkreturik ez duena; zalan-tzaz, gatazkaz, esperientziaz eta saiakeraz beteriko ibilbidea.<sup>5</sup>

Zergatik diogu *feminista* dela? Amaia Perez Orozcok galdera honi erantzuteko hurbilketa bat ematen digu. Lehenik eta behin, heteropatriarkatu<sup>6</sup> hartzen duelako mundua eta sozioekonomia eraikitzen duen sistema osagarritzat. Bigarrenik, bere edukiak feminismoen proposamen historikoetan oinarritzen direlako. Gainera, pertsonala dena politikoa dela dauka abiapuntutzat, beraz, sistemaren transformazioa ez da kanpoko egiturak aldatzearekin soilik etorriko, nork bere burua egitura hauetan non kokatzen duen eraldatzearekin baizik.

Gaur egungo ekonomia feminista ezberdintzen duten hiru ezaugarriak honakoak dira: merkataritza-muga ekonomia definitzen duen elementua dela zalantzan jartzea, lana ordaindutako edo ez ordaindutako lana bezala laburtzea ezinezkoa dela azpimarratuz; sistema ekonomikoa ulertzeko generoaren araberako harremanak konprenitzea ezinbestekotzat hartzea, eta beraz, generoa analisirako kategoria funtsezkotzat edukitzea; eta berariazko konpromiso politikoa hartzea, non teoria ez den ezagutzeko maitasunagatik egiten, sistema sozioekonomiko iraunkor eta justuagoa eraikitzerako bidean laguntzeko baizik.<sup>7</sup>

Autore askoren arabera, ekonomia, ez da zientzia neutroa generoari dagokionez.<sup>8</sup> Praktika ekonomikoa giza praktikan oinarrituta dagoela onartzen badugu, hau da, giza elkarrekikotasunean garatua eta findua izan dela, orduan, giza mugek, interesek eta aurreiritzi metodologikoen ondorio serioak eragin dituztela onartu beharko genuke. Ekonomiaren analisi feministak, bestelako zientziek bezala, sozialki eraikitakoa dela defendatzen du.<sup>9</sup>

Aurretik aipatutako begirada horiek ulertzeko, Astrid Agenjok Amaia Pérez Orozcok<sup>10</sup> egindako sailkapena laburtzen du. Sailkapen horretan, generoaren ekonomia, ekonomia feminista integratzailea eta hausturaren ekonomia feminista ezberdintzen dira. Orozcoren hitzetan, helburua ez da egile bakoitza lerrokatzea, aitzitik, ideien inguruan eztabaidatzeko tresnak ematea du xede. Modu orokor batean, generoaren ekonomiak emakumeak analisisan sartzeko helburua du, «emakumeak sartu eta nahastu» estrategia deritzona hain zuzen ere. Adjetibazio feministak planteatzen duen diskurtso politiko esplizituaren aurrean, diskurtso objetibista eta despoltizatua eratzeke grina dutenen nomenklatura nagusia da.<sup>11</sup> Ekonomia feministak ordea, ikuspegi androzentrikoak<sup>12</sup> oinarritzeko irizpide epistemologikoa

berak joera handia zuelako, androzentrikoak direla dio. Honi jarraiki, ekonomia feminista integratzaileak, emakumeen eta genero harremanen egoerak analisisan sartzeko aurretik existitzen diren markoak kontuan hartzen ditu. Metodologiaren ikuspuntutik, ekonomia eta lanaren kontzeptuak osatzen duten fundamentuak deseraikitzen ditu. Horretarako, etxeko-pribatu esfera ikustera ematen du, eta behin ikusgai dela, jarduera horiek birbaloratzeko helburuari eusten dio, maskulinoa eta baloratua denari lotuz. Hausturarako ekonomia feministak bere aldetik, ez dio analisisirako balore berdina emango bereizitako esfera ekonomikoei (merkatu/etxeko),<sup>13</sup> hauek edukitzen eta zeharkatzen dituen elementua jarriko du erdian: bizitzaren sostengua.<sup>14</sup>

Azkenik, aipatu beharra dago, ekonomia feministaren goreneko aldia, hots, aspalditik aldarrikatzen zuten krisi estrukturala, 2008ko krisi finantzarioarekin izan zela. Kapitala eta bizitzaren<sup>15</sup> arteko gatazkak, agerian utzi baitzituen zaintza lanen krisia. Aldiz, ekonomialari feministek, krisia begiratu eta ulertzeko era anitzak daudela defendatzen dute eta, 2007 baino lehenagokoak dira. Finantza sistemaren ezteandaren aurretik, elkar ekiten zuten bestelako krisiak zeuden: krisi ekologiko globala, erreproduzio sozialerako krisia hegoaldean eta zaintza krisia iparraldean.<sup>16</sup> Beraz, krisia bizitzaren sostengutik begiraturaz gero, bizitza birsortzea arriskuan jarritzen denean emango da.

### 1.b. Ekonomia feministaren nondik norakoak

XIX. mendean, feminismoaren aitzindariak, emakumezkoek lana izateko eskubidea eta soldata zein lan baldintzetan sexuen artean zegoen ezberdintasuna aldarrikatu zuten. Ekonomia feministak arlo teoriko eta epistemologikoan aurrerapen handiak egin zituen arren, ez zuen teoria ekonomiko nagusiaren oinarrian eraginik izan. Modu honetan, pentsamendu ekonomiko ofizialetik eta ekonomia feministatik landutako proposamen berriak, gurutzatu ez diren bide paraleloetatik jardun dira. Eta paradigma ekonomiko ezberdinek (neoklasikoak, erakundeenak, marxistak), emakumeei dagokien lanaren inguruko ekarpenak egin izan dituzten arren, betiere gaiaren trataera ikuspuntu androzentriko batetik egin dutela kontuan hartu behar dugu.<sup>17</sup>

Urteetan zehar ekonomia feministak diziplina ekonomikoan asaldaketarik ez eragiteak hainbat arrazoi izan ditu Carrascoren hitzetan. Batetik, ekonomia, hausturarik gabe agertzen zaigun paradigma neoklasikoaren menpean dagoela eta ekonomia feministak planteatzen dituen arazoak lantzea ezinezkoa egiten duten suposizioetan oinarritzen dela. Eta gainera, Humphries ekonomialaria gogora ekarriz, paradigma honen barnean landuz gero, hartzen duen ikusmoldeak, emakumezkoek sexuaren arabera jasaten dugun desberdintasun sozialaren egoera justifikatzera eramaten gaitu kasu askotan. Bestetik, ekonomia botere sozial handienaz gozatzen duen gizarte diziplina dela, nagusitasun maskulinoa ahalbidetuz. Azkenik, muga ekonomikoaren definizioak merkatuari dagokiona bakarrik dauka kontuan, ikuspe-

gi estu eta baztertzaila emanez. Merkatuarentzat ezinbestekoa den lan indarraren erreprodukzioaren garrantzia analitiki kanpo uzten da eta, ekonomia feministak berezkoa duen elementua baztertzen da; biziraupenerako ezinbestekoak diren beharren asetzea eta pertsonen ongizatea hain zuzen ere. Ekonomia feministak planteatzen dituen ikuspegi alternatiboen artean, giza bizitza erdigunean jartzen duen bidea dugu hasiera puntutzat. Ekonomia neoklasikoak ostera, baliabideen erabilera efiziente eta arrazionala.

Amaia Perez Orozok, Ecuadorren sortutako «*buen vivir*»<sup>18</sup> edo «ongi bizitzea»-ren kontzeptua ekartzen digu gogora. Honenbestez, ekonomialari feministek kontzeptu hori berreskuratu eta birmoldatu dutela azaltzen digu, honek adiera<sup>19</sup> ezberdinak hartzen dituen arren, logika multidimentsional (ingurugiroa, sozial, erreproduktiboa) batengatik ordezteko helburuarekin mintzo direla dio, hazkundearen eta produktibismoaren logikarekiko errotiko hausturaz hain zuzen ere. «ongi bizitzea», ahultasuna, interdependentzia eta ekodependentziaren<sup>20</sup> existentziari men egiten dion nozioa izan behar da.

Ekonomia neoklasikoari, familia zein lan merkatuko sexuen araberako rola arrazionalizatzea leporatzen zaio ekonomia feministatik, existitzen den egoera indartzen duela aldarrikatuz. Marxismoari,<sup>21</sup> proletalgo, esplotazio, produkzio eta erreprodukzioaren nozioak generoaren arabera neutrotzat ematea eta emakume eta gizezko langileen interesen konbergentzia naturaltzat hartzea. Modu honetan, ekonomialari feministen arabera, bi eskolek sexuaren araberako lan banaketa, bai familian baita gizartean ere, biologikoki determinatua balitz bezala aurkezten dute<sup>22</sup>. Zentzu honetan, Silvia Federici feudalismotik kapitalismorako trantsizioaren inguruan mintzatzen zaigu *Calibán y la Bruja* liburuan. Bertan, prozesu honen analisisan egin diren baieztapenek emakumearengan eragina izan duten ñabardurez josita daudela aldarrikatzen du: 1. Prozesu honek gorputza lanerako makinan eraldatzea eta emakumeak lan indarraren erreprodukzioaren menpe jartzea ekarri zuen. Funtsean, emakumeen boterearen suntsiketa suposatzen zuen, Europa zein Amerikan, sorginen sarraskiaren bidez lortu zena. 2. Jatorrizko akumulazioa ez zen esplotatuak izan zitezkeen langileen eta kapitalaren kontzentrazio eta akumulazio soila izan. Halaber, langile klasearen barneko ezberdintasun eta zatiketen akumulazioa izan zen, zeinetan genero, arraza edo adinaren araberako hierarkiak klase dominazioaren eta langileria modernoaren osagarri bilakatu ziren. 3. Marxistek (eta beste batzuek) ez bezala, ezin dugu akumulazio kapitalista langilearen, gizon edo emakumearen, askatasunarekin lotu. Aitzitik, kapitalismoak esklabotza era bortitzenak sortu ditu, esplotazioa areagotzeko eta ezkutatzeko langileriaren gorputzetan zatiketak txertatuz. Hein handi batean, zatiketa hauei esker, eta batez ere gizon eta emakumeen arteko zatiketari esker, akumulazio kapitalistak munduko txoko bakoitza hondatzen jarraitzen duela esan dezakegu.

Honen harira, gizartearen erreprodukziorako lanak, eta hauen barnean zaintza batez ere (ordainduta edo ez), eta sexu araberako lan banaketak, gizakion ongiza-

terako eta eredu ekonomiko kapitalistaren garapenerako ezinbestekoak izan direla ondoriozta dezakegu.<sup>23</sup> Sexu araberako lan banaketaren inguruan, lanen banaketa sistemiko batean datzala defendatzen du Perez Orozcok, ez dela zoriz edo negoziazio indibidualengatik egindako banaketa, egitura politiko eta sozioekonomiko batzuei erantzuten dion zatiketa baizik. Gainera, sexua lanak banatzeko oinarritzko irizpidea da; emakume edo gizonezko bezala irakurria<sup>24</sup> zaren heinean, jarduera bat edo beste tokatuko zaizu. Modu honetan, feminitateari lotzen diren lanak botere sozioekonomiko txikiagoa izango dute, eta gizarte kapitalista honetan, bizitza sostengatzen duten lanak dira hauek: zaintza lanak.

Naturarekiko itxia eta analisirako muga estuak dituen sistema bezala definitu izan ohi da ekonomia: ikerketarako eremua merkatuko mundu publikoa izan da, non lana enpleguarekin identifikatzen den. Ondorioz, ekonomiak diziplina moduan, bizitza ekonomikoaren limite faltsuekin funtzionatu du, bere burua «autonoma» bezala definituz. Aldiz, sistema sozioekonomikoak bere jarraitasuna eta erreproduktzioa bermatzeko, orokorrean «lanak» deritzogun jarduera anitzen beharra daukala planteatzen du ekonomia feministak.<sup>25</sup> Historikoki, lana honela definitu izan da: energia fisiko edo intelektualen gastua suposatzen duen jarduera produktiboa- denbora tarte ziurtatu eta erregulatu batean- helburu jakin bat lortzeko: ondasunak lortzea, zeharkako edo zuzenezko modu batean, eta balore monetario bat jasoz konpentsazio moduan.<sup>26</sup> Feminismoak aldarrikatzen dituen «beste» lan horien artean, bere edukiagatik eta suposatzen duten denboragatik, etxeko lanak eta zaintza ditugu garrantzitsuenak. Hortaz, zerbitzu eta materialetan oinarritutako ongizatea kolokan jartzen da eta, denboraren erabilpena bizitzaren ezaugarri bezala hartzen da.<sup>27</sup>

Ekonomia feministatik eraikitako ikuspegi analitiko eta politiko honek, ohiko ekonomiarekiko kritika eta berdintasun egoeran emango den giza zaintzaren inguruko proposamen alternatiboak konbinatzen ditu, produkzioarekiko banaezinak diren ekonomiaren dimentsio erreproduktiboak kontuan har daitezten. Giza zaintzaren zikloak etxeetan eta ez ordainduak diren emakumeen lanetan oinarritu egin baitira, eta etengabeko erlazioan daude merkatu zein akumulazio prozesuekin.<sup>28</sup>

Industrializazio Kapitalistaren aurretiko European nagusi zen iraupenerako ekonomiatik, eredu berri horretara pasatzeko prozesuan, produkzio eta erreproduktzioaren unitatea amaitu egin zen; jarduera hauek, sexuaren arabera ezberdintzearekin batera, beste gizarte harreman batzuen eramaile bilakatu. Erregimen monetario berri honetan, merkaturako produkzioak bakarrik sortzen zuen balorea, eta langilearen erreproduktzioa balore ekonomikorik gabeko jardueratzat hartu zen, gainera, lana bezala kontsideratzeari utzi zitzaion. Etxeetan ematen zen lan-eskuaren erreproduktzioaren garrantzia eta kapitalaren akumulazioan zeukan funtzioa, ezkutukoak bilakatu ziren, bokazio natural batekin nahastuz eta «emakumeen lana» bezala izendatuz.<sup>29</sup> Beraz, feminitateari dagozkion eta bigarren mailako lanak direnaren nozioak desnaturalizatzeak, prozesu horiek ikustaraztea, erregistratzea zein kuan-

tifikatzea, moduak azaltzea eta non ematen diren ezagutzea ekarriko du ekonomia feministak.<sup>30</sup>

Bestalde, aurretik esan bezala, ohiko ekonomiak- neoklasikoak batez ere- ekonomia bera, autonomoak diren eta merkatuan euren interesaren arabera erabaki arrazionalak hartzen dituzten indibiduen arabera ematen dela suposatzen du. Aldiz, errealitatean, ezberdintasun egoera batean ematen den arren, gizaki guztiak elkarren menpekoak (interdependienteak) gairela defendatzen du ekonomia feministak. Halaber, etxeko kideen artean ematen diren erabaki hartzeak zein baliabideen, denboraren eta lanaren banaketak, arrazionaltasun ekonomikoak eragiten ditu, baita jarraibide kulturalak, botere harremanak eta behar dugunaren eta ematen dugunaren gaineko sinesmen subjektiboak ere.

Ekonomia Feministak *homo economicus*-aren ezaugarriei eta jokatzeko erari egiten dion kritika epistemologiko eta metodologikoak, ekonomia ortodoxoak kontuan hartzen ez dituen dimentsioak sartzen ditu. Horrela, lehenetsunaren gaineko pertzepzio subjektiboak, jarraibide kulturalak eta negoziazio ahalmena zein erabaki ekonomiko autonomo eta informatuak hartzerako orduan mugatzen dituzten egoera materialak, etxeko arduren eta zaintzaren garrantzia bereganatzen ditu<sup>31</sup>. Gizarteak zaintzarekin lotura duten arazoei aurre egiteko erabiltzen dituen moduak ondorio esanguratsuak ditu genero berdintasunean. Eta zaintzari heltzeko erabiltzen diren irizpide ezberdinek harreman handia dute beste desberdintasun era batzuekin, arraza eta gizarte klaseari dagokionez batez ere. Historikoki, herrialde anitzetan, arraza edo etniagatik gutxietsiak izan diren taldeetako emakumeek, boteredun taldeen zaintza beharrak ase egin dituzte.<sup>32</sup>

Honi jarraiki, «zaintzaren kate globalen»<sup>33</sup> kontzeptua azaltzen digute Irma Arriagada eta Rosalba Todorok Txilera migratutako emakume perutarren inguruko lanean. Bertan, Amaia Pérez Orozcoren hitzak gogora ekarriz, kate hauek, bizitza sostengatzeko eratzen diren kateak direla azpimarratzen dute, non zaintza lanak etxe batetik bestera igarotzen diren botere harreman batzuk direla medio, horien artean esanguratsuenak, etnia, genero, klase soziala eta sorterrira direlarik. Gaur egun, pertsonak alde batetik bestera mugitzen gara, beraz, zaintza sistema internazionalizatzen da, zaintza kate globalak sortuz.<sup>34</sup>

Neoliberalismoa atzean uzteak, ekonomia egiteko eta definitzeko ditugun moduak apurtzearekin dauka zerikusia. Honek produkzio matrizean, ekonomia nortzuk eta nola egiten duten, zer eta nola produzitu, zer eta nola kontsumitu, azken finean, bizitza nola erreproduzitu behar den inguruko ikusmoldeak eta politikak aldatzea dakar.<sup>35</sup> Beraz, ekonomia feminista ez da emakumeak ekonomian sartzeko metodo eta teoriak hedatzeko saiakera bat, Sandra Harding-en hitzak ekartzen ditu gogora Carrasco-k, ez da «emakumeak gehitu eta nahastearen» ideia, errotiko aldaketa bat suposatzen du, giza beharren asetzea oinarritzat duen iraultza sakona. Ekonomiak duen joera androzentrikoa ezbaian jartzen ari da; ordaintzen ez diren jarduerak edo merkatuan baloratzen ez direnak, nagusiki emakumezkoek egiten

dituzten giza bizitzaren zaintza lanak alde batera uzten dituen eta merkatuetan oinarritzen den munduaren errepresentazio abstraktua hain zuzen ere.<sup>36</sup>

### Ekonomia feminista eta hezkuntza

Feminismoa mundua eta bizitza ikusteko era bat izateaz gain, gizartean, politikan, kulturen eta epistemologian genero harremanak aldatzeko saiakera bat da. Halaber, antolatzeke moduak eta baloreak aldatzeko proposamena egiten du, gizakion askatasunean eta berdintasunean oinarrituz. Hortaz, politikarako eta gizarte kulturarako proposamen bezala, bere hasieratik, hezkuntzan helburu eta estrategia ezberdinekin eragiteko hautua egin du feminismoak.<sup>37</sup>

Feminismoa hezkuntzan eragiteko zeharkako gaia<sup>38</sup> dugu, eta Hezkuntza Ministerioak horri eusteko egiten dituen saiakeren artean, «Emakumezko eta gizonezkoen paperak gizartean» ikasgaia prestatu du. Ekonomia Feministak egiten dituen proposamenek genero araberako berdintasunetik haratago doazen arren, ikasgai honetan planteatzen dituen ariketa batzuen artean, ekonomiarekin eta zehazki ekonomia feministarekin bat egiten duten ariketa pare bat proposatzen ditu López Pardinak.<sup>39</sup> Bertan, ikasgai ezberdinetan genero ezberdintasunen inguruko arazoak lantzeko ariketak azaltzen dira eta, horien artean, «sexu araberako lan banaketa» eta «ordaindu gabeko etxeko lanak» ditugu. Beraz, hezkuntza erakundeek honen garrantzia atzeman dutela agerian geratzen da, baina, gai hauek dagozkien ikasgaietan lantzea izango litzateke zuzenena, hau da, ikasgai bakoitzean, feminismotik planteatzen diren arazoak txertatzea. Beraz, ekonomia ikasgaiaren kasuan, Ekonomia Feministak egin dituen ekarpenak sartuz gero, berdintasunean oinarritutako hezkuntza bermatuko diegu ikasleei.

Emakumeek eskolan duten arrakasta gora egin duen arren, neskek, sistema androzentriko bat barneratzen jarraitzen dute, gizartean betetzen duten papera bigarren plano batean utziz, eta ekonomia ez dugu gai neutroa alor honetan. Emakumeak eta euren ekintzak ez ikusteko eta ezkutatzeke jarrera dago historian eta gizarte zientzietan, horregatik, emakumeak ikustaraztea ezinbesteko helburua dugu; gizartean izan duen parte-hartzea eta gizakion garapen historikoan egindako ekarpenak kalera eta hezkuntzara ateratzea, eredu androzentrikoarekiko alternatiboa izango den modelo kulturala eraikitzeke hain zuzen ere. Eskola, ezberdintasunen igorlea izaten uzteke, transmititzen duen kultura aldatu behar dugu, hezkuntza sistema artikulatzen duten praktika eta curriculum-ak aldatuz.<sup>40</sup> Ohikoa den eskema kontzeptuala hautsi behar dugu, mundua era hierarkiko batean, orokortasun maskulinoetan eta espezifikazio femeninoetan deskribatu dituzten tradizioak ezabatu behar dira.<sup>41</sup>

Mundu akademikoan interes maskulinoak lehenesten dira, bai irakaskuntzan baita ikerketan ere, horregatik, feministek elkartzeko beharra ikusi dute, emakumeen ikasketak sartzen hasteko,<sup>42</sup> eta honek, emakumeak ezagutzaren subjektu eta



objektu bezala ipintzea dakar, Marilyn J. Boxer-en hitzetan, «mundua ezagutu eta aldatzeko».<sup>43</sup>

Hezkuntza askatasunaren praktika bezala ulertzeak, Hooks-ek «pedagogia konprometitua» deritzona, irakasleen teoria eta praktikaren analisia eginez, ikasleak irakaskuntza-ikaskuntza prozesuei atxikitzen den genero, klase eta arraza araberako hesiak urratzera eramán ditzake ikasleak, ideien azalpenean askatasuna lortzeko eta munduarekiko jarrera kritikoa izateko helburuarekin.<sup>44</sup>

Zentzu honetan, Nafarroako Gobernuak adostutako ekonomia ikasgaiko curriculum-ean<sup>45</sup> honako helburuak ditugu:

- Gertaera ekonomikoak, gertatzen diren ingurune sozial, politiko, kultural eta naturalarekin lotzea.
- Merkatuaren funtzionamendua eta honek dituen limiteak deskribatzea, sistemarekiko epaiketa kritikoa garatuz.
- Garapen ekonomikoak ingurumenean eta pertsonen bizi kalitatean duen eragina, modu kritiko batean ikertu eta baloratzea.

Era berean, jarraian aipatzen diren kalifikazio irizpideak aipatzen dira:

- Herrialdeko egitura produktibo nagusiak identifikatzea: lanaren banaketa teknikoa eta interdependentzia ekonomikoa erlazionatzea.
- Magnitude ekonomiko nagusiak ezberdintzea eta haien arteko erlazioak ikertzea, bizi kalitatearen adierazle bezala aurkezten dituzten eragozpen eta mugak kontuan hartuz.
- Garapen ekonomikoak, krisi ekonomikoak, integrazio ekonomikoak eta merkatu globalak pertsonen bizitzarengan eta aberastasunaren banaketarengan duen eragina baloratzea.
- Birbanaketa neurriak, mugak eta albo kalteak ikertu, eta ekitatea hobetzen duten neurriak ebaluatzea.

Irizpide hauek guztiak, Ekonomia Feministak aldarrikatzen dituen eta arestian aipatu ditudan gai batzuk biltzen ditu, beraz, logikoa zaigu pentsatzea, ezinbestekoa dela curriculum-ean eskatzen diren helburuak betetzeko, Ekonomia Feministaren ekarpenak irakastea. Gainera, feminismoa zeharkako gaia den heinean, ekonomian eragiten du ere, hortaz, feminismotik ekonomiara egindako ekarpenak ikasgaiari planteatzea ezinbestekoa da ezagutza zabalagoa jasotzeko.

Halaber, hezkuntza gizakion askatasunerako bidea bezala ulertuta eta jarrera kritikoa sortzeko tresna bezala ikusten badugu, berdintasunean hezteko ezinbestekoa bilakatzen da. Hortaz, pedagogia feminista bultzatzen duten autore batzuen arabera, pedagogia aurrerakoi eta erradikal/kritikoen<sup>46</sup> barnean sartzen da pedagogia feminista. Klasea aldaketa sozialerako zein kritikarako eremu bezala ulertzen baitu, gainera, emakumeetan eta genero, arraza eta gizarte klasearen araberako elkarguneetan jartzen du atentzioa» (Briskin y Priegert, 1992). Beraz, ekonomia ikasgaiak ezagutzaren transmisioa egiten duen heinean, bere alorretik, curriculum-

ma betetzeko, pedagogia feministak proposatzen dituen helburuak lortzen lagundu beharko du.

### 3. Ikerketa honen abiapuntua

Ikerketa honekin, bi helburu nagusi izan dira. Alde batetik, batxilergoko lehen-dabiziko mailako *ekonomia* ikasgaiaren Ekonomia Feministak egindako ekarpenak jorratzen diren edo ez jakitea. Eta bestetik, aztertutako ikasleek ekarpen hauen inguruan ikasteko eta jakiteko grina duten aztertzea.

Agerian geratu denez, ekonomia feminista azken urteotan garrantzia hartu duen gaia da, beraz, nahiko berria dela esan daiteke. Honek bi erronka dakar berekin, lehen-dabizikoa irakasleek ekonomia zientziaren baitan sortzen diren teoria eta lan ezberdinetan erne egotea eta, bigarrena, gai hauen garrantzia atzemaite klasean emateko. Horregatik, hirugarren helburu bat irakasleek ekonomia feministak egindako ekarpenak klasean emateko garrantzitsuak ikusten dituzten ala ez jakitea eta, horren zergatia ezagutzea izango da.

Aurreko atalean aipatutako helburuak jorrazteko bi metodologia erabiliko dira. Bata ikasleen jakinduria eta jakin-mina ezagutzeko eta bestea irakasleena aztertzeke.

Lehendabiziko helburuen inguruko erantzunak jasotzeko, analisi kuantitatibo bat egin da eta horretarako, Iruñeko ikastetxe katoliko bateko batxilergo lehenengo mailako ikasleei galdetegi bat pasa zaie. Lanketa estatistikoa egiteko Statistical Package for Social Sciences (SPSS) - PASW 20.0.1 bertsioa- programa erabili da. Hala-ber, erabilitako aldagaiak estatistika deskribatzaile baten bidez ikertu dira, baloreak media eta desbideratze tipiko bezala aurkeztuz. Gainera, Kolmogorov- Smirnov-en Z proba burutu da aldagai bakoitzaren datuen normaltasuna ziurtatzeko. Datu kualitatiboak ikertzeko, frekuentzia analisiak eta kontingentzia taulak erabili izan dira nagusi eta test hauen signifikazioaren goi muga  $p < 0,05$ ean jarri da.

Hirugarren helburuari begira, irakasleek ekonomia feministak egindako ekarpenak klasean emateko garrantzitsuak ikusten dituzten ala ez jakiteko, teknika kualitatibo bat erabiltzea erabaki da, batxilergo lehenengo mailako irakasle batzuekin elkarrizketa sakonak hain zuzen ere.

Ikerketa kualitatiboan oinarritzen diren teknika ezberdinak<sup>47</sup> ditugu, besteak beste, ikerketa dokumentala egiteko; irakurketa eta dokumentaziozkoak, behaketa eta parte-hartzekoak, eta, elkarrizketa eta narrazioaren artean, metodologia bibliografikoa, eztabaidarako taldeak eta elkarrizketa sakona ditugu.

Ikerketa honetarako, irakasleen motibazioak eta bizipenak ezagutu nahi dira, eta elkarrizketa sakonaren bitartez, informazio zabal, pertsonalizatua eta testuinguru bati lotutakoa lor daiteke. Modu honetan ere, analisi kuantitatiboarekin lortu diren datuak osatu eta ikerketaren ondorioetan laguntzeko baliagarria izan da. Hitzaren aberastasunean oinarritzen den teknika baita. Modu berean, teknika kuantitatiboak baino egestura gutxiago du eta ez da beharrezkoa lagin zabal eta populazioaren adierazgarri izatea. Horregatik, ateratzen diren emaitzak orientagarriak izango dira.

Bestalde, esan beharra dago, ikerketa hau egiteko, beste metodologia batzuetan oinarritu daitekeela. Batxilergo lehenengo mailan ematen diren edukiak aztertzeke, eta beraz, Ekonomia Feministaren ekarpenak adierazten diren jakiteko, testu liburuaren azterketa egin daiteke, eta aldi berean, Nafar Gobernuak adostutako curriculum-arekin konparatu. Hortaz, ikerketa hau jarraitzekotan, metodologia zabal eta osatuagoa erabili beharko zen.

Ikasleen ezagutza eta nahiak aztertzeke, galdetegia izan da funtsezko tresna, ikerketarako bidean, analisi kuantitatiboak egiteko elementurik baliagarriena izaten baita. Alde batetik, lagin handiagoa aztertzeke aukera ematen duelako eta bestetik, proposatutako helburuak tratatzeko modurik erosoena delako.

Ez da komeni galdetegi sobera luzea egitea, hasteko, galdera asko jarriz gero, ikasleek atentzioa galtzeke aukera gehiago dituztelako, eta jarraitzeke, kontuan izan behar da Ekonomia Feministaren inguruko ekarpenak eta kontzeptuak berriki izango direla beraiantzat eta luzatzekotan, ausaz erantzutea ahalbidetu daitekeela.

Beraz, hiru ataletan bereizitako bederatzigalderetako test batean oinarritutako ikerketa kuantitatiboa da honakoa. Lehendabiziko atalean identifikazio pertsonalarekin zerikusia duten galderak plazaratu zaizkie, hau da, klasea, adina eta sexuaren ingurukoak. Klasea eta sexua, eskala ez-metrikiko eta nominalak dira. Eskala hauek, oso sinpleak dira, erantzuten duenari ez dio esfortzurik eskatzen eta, pertsonen aspektu batzuk sailkatzea eta horiekin identifikatzea lortzen da. Besteak beste, aurreantzean proposaturiko galderetan alderdi hauen araberrako ezberdintasunak azaltzen ziren edo ez ikusteko.

Bigarren atala, ikasleek batxilergoko lehenengo mailan zehar jasotako kontzeptuen araberrako lau galderek osatzen dute. Lehenengoan, ekonomia eredu ezberdinak ikasi dituzten edo ez jakiteke, item anitzeko eskala erabili da hain zuzen ere. Bigarreanean, ekonomia ortodoxoan<sup>48</sup> erabiltzen diren kontzeptuak eta ekonomia feministak proposatzen dituen kontzeptu ezberdinak nahasi dira, haien artean ezaugarrienak dituztenak aukera dezaten, eta hirugarren batean, aurrekoan bezala, ekonomia eredu ortodoxoak eta ekonomia feministak egindako ekarpenen inguruko kontzeptu batzuk eman zaizkie, baina kasu honetan, item anitzeko eskala baten bitartez baloratu behar dituzte. Hiru galdera hauekin, lehendabiziko helburua jorratzea izan da xedea, hots, «batxilergoko lehendabiziko mailako *ekonomia* ikasgaietan ekonomia feministak egindako ekarpenak jorratzen diren edo ez jakitea». Laugarren galdera, ekonomia ikasgaietan gaitasun kritikoa lantzeke baliagarria izan zaien edo ez galdetu zaie. Ekonomia Feminista bezalako pentsamenduak klasean emateak, ezinbestean, ekonomia ortodoxoak kontuan hartzen ez dituen bestelako aspektu eta begirada batzuk ematen baitizkigu. Honenbestez, liburuetan eskaintzen den ekonomia ortodoxoarekiko kritikak ezagutzea ahalbidetzen du.

Hirugarren atalean, ikasleen usteei jarraiki, ekonomia feministak planteatzen dituen aspektu ezberdinak baloratu behar dituzte. Honetarako ere, item anitzeko eskala bat erabili da ildo hau jorratzeke. Gainera, galdera hau osatzeko, azkeneko

galdera bat gehitu da, aurreko kontzeptuetatik zenbat ikasi nahiko dituzten jakiteko. Hortaz, bigarren helburua aztertzeke aukera ematen digute galdera hauek, «ikasleek ekarpen hauen inguruan ikasteko eta jakiteko grina duten aztertzea» alegia.

Bestalde, datuen analisia egiterakoan, adin hauetako ikasleei galdetegi bat pasatzeak dituen mugak kontuan hartuak izan dira. Bestak beste, galderak azkar irakurtzen dituzte eta axola ez zaien gaia delako, edozer gauza erantzun, edota irakaslearen aurrean «ongi geratzeko» helburuarekin ez dakizkiten gauzetan edo ikusi ez dituztenetan baiezkoa eman dezakete.

Agerian den bezala, bi lagin ezberdindu dira ikerketan zehar, bata ikasleena eta bestea irakasleena. Lehena, analisi kuantitatiboan egiteko, Iruñerriko ikastetxe bateko batxilergoko lehenengo mailako ikasleak: osotara 53 ikasle dira, 27 A klasekoak eta 26 C klasekoak. Aipatu bezala, lagin txikia eta nahiko homogenea dela, hortaz, analisian ateratako ondorioak ezin dira gizartera estrapolatu. Ikerketa fidagarriago bat egiteko, lagina aukeratzeko beste aldagai batzuk kontuan hartzea izango zen zuzenena. Besteak beste, ikastetxe ezberdinetako ikasleak hartzea izango litzateke hoberena, publiko eta pribatuko ikastetxeak konparatzeko, hiri zein herrietako ikastetxeen arteko aldeak ikertzeko eta Nafarroaren kasuan, hizkuntzaren arabera ere ezberdinen arteko konparaketak egiteko baliagarria den lagina hartuz. Bigarrena, Iruñerriko ikastetxe ezberdinetan, ekonomia irakasle lanetan ari diren bi irakasle dira. Bata, kultura Katolikoa duen eskola pribatu kontzertatuko gizona irakaslea eta bestea, institutu publiko bateko emakumezko irakaslea. Kasu honetan ere, lagin txikia da. Azterketa kualitatiboak egiteko lagin txikiakin nahikoa den arren, ikerketa onetarako lortutakoa nahiko motz geratzen da. Hortaz, ikastetxe anitzak adieraziko lituzketen 6-8 irakasleen lagina lortzea izango zen hoberena.

#### 4. Ikasleen jarrera


Erantzundako datuen analisia burutzeko, helburu bakoitzari lotuta dauden galderetatik ateratako datuak azalduko dira jarraian.

Lehendabiziko helburua, «batxilergoko lehendabiziko mailako *ekonomia* ikasgaiaren ekonomia feministak egindako ekarpenak jorratzen diren edo ez jakitea» da. Esan bezala, helburu honi heltzeko, lau galdera prestatu dira, beraz, hauen inguruko azterketa egingo da.

Ekonomia antolatzeke ere ezberdinen inguruan jasotako ikaskuntzari buruz, honako erantzunak eman dituzte batxilergo lehenengo mailako ikasleek: (*ikus 1. Grafikoa*).

Guztira bost eredu ekonomiko edo ekonomia pentsatzeko era plazaratu dira: Ekonomia Mistoa, Planifikazio Zentralizatuko Ekonomia, Merkatuko Ekonomia (neoliberalismoa), Ekonomia Ekologikoa eta aztergai den Ekonomia Feminista hain zuzen ere. Bakoitzaren inguruan ikasitakoa baloratzeko eskalak lau alderdi

### 1. Grafikoa: Batxilergo lehenengo mailan, ekonomia antolatzeke eta pentsatzeko ereduak eman zaien garrantzia



Iturria: nik prestatutako galdetegiaren datuak4

ditu. Lehena, «ezer ez» etiketarekin izendatua, eredu ekonomiko horren inguruan ezer ikasi ez dutela adierazteko, bigarrena, «gutxi» etiketarekin, zerbait behintzat ikasi dutela esateko, hirugarrena, «nahikoa», horren inguruan aski ikasi dutela eta laugarrena, «asko».

Begi bistakoa da, bai ekonomia ekologikoaren<sup>49</sup> baita ekonomia feministaren inguruan ere, «ezer ez» edo «gutxi» ikasi dutela. Ikasleen %70a eta %75ak, hurrenez-hurren, «ezer ez» ikasi ez dutela adierazten dute, eta %13 eta %18 inguruk «gutxi» ikasi dutela. Aldiz, ekonomia mistoa, zentralizatua eta merkatukoa aztertuz, ikasle guztiak ados daude merkatuko ekonomiaren inguruan «asko» edo «nahiko» ikasi dutela, zentralizatua %90ak «asko» edo «nahiko» dakitela aitortzen du eta azkenik, ekonomia mistoaren inguruan ere %90ak «asko» edo «nahiko» dakiela dio.


Ikasleen gehiengoak Ekonomia Feminista eta Ekonomia Ekologikoari buruz «ezer ez» edo «gutxi» ikasi dutela aitortzeak, agerian uzten du, gutxienez ikastetxe honetan, gaur egun indarra hartzen ari diren pentsamolde hauek ez direla kontuan hartzen. Galderan plazaratu zaizkien beste hiru eredu ekonomikoak, batxilergo lehenengo mailan<sup>50</sup> ikasten diren ekonomia antolatzeke erak dira. Era berean, hiru eredu hauek, euren irakaslearen erabiltzen duen liburuaren (Mc Graw Hill) gai bakarra okupatzen dute, eta guztira 13 orri alde dituzte ekonomia antolatzeke modu hauek ezagutzeko. Hauen artean, merkatuko ekonomia da ikasgai guztian zehar ikusten duten adibide ekonomiko bakarra. Honek zentzua izan dezake gaur egun bizi dugun eredu ekonomikoa delako. Aldiz, ekonomia antolatzeke forma honek aurkeztu dituen hausturak eta kritikak irakaslearen ardura bilakatzen dira sarritan.

Izan ere, testu liburuak ez du horretarako tarterik ematen eta irakaslea da horren inguruan informatu eta klasean eman edo ez erabaki behar duena.

Halaber, kontraesanak edo gaizki ulertuak azaltzen dira erantzunetan. Ekonomia Mistoari eta Planifikazio Zentralizatuko ekonomiari garrantzi handia eman zaiola adierazten du ikasleen %90ak. Merkatuko ekonomiari eman zaien garrantziarekin, soilik %10eko ezberdintasuna dagoelarik. Esan bezala, gai batean hiru ereduak azaltzen zaizkie modu labur batean eta gainontzeko gaietan merkatuko ekonomia lantzen dute, hortaz, ikusi bai ikusi dutela baina kurtsoan zehar merkatuko ekonomia lantzen dute. Erantzun hauek jasotzeak arrazoi anitz izan dezake. Besteak beste, galdera gaizki ulertzea, hau da, emandako *garrantziaz* galdetu zaie eta baliteke ikasle batzuek horren inguruan ikasi dutela atzematea eta noizbait horren inguruko zerbait entzun edo ikasi dutenez, garrantziko zerbait bezala hartzea. Halaber, adin hauetan, eta «irakasle» moduan ikusten duten pertsona batek galdetegia pasa dielako, bere aurrean «ongi geratzeko» xedearekin, hau da, haietaz espero dena bete nahi dute, kontzeptu hauek ikasi dituztela islatu nahi dute alegia.<sup>51</sup>

Ekonomia ortodoxoak eta ekonomia feministak egindako ekarpenen inguruko jakintzaren gaineko hurbilketa bat egiteko, ezagunak dituzten hainbat kontzeptu markatzeko eskatu zaie hurrengo galderan. Datuen analisia egin ostean, hauek dira kontzeptu bakoitzaren inguruan emandako erantzunak:

## 2. Grafikoa: Kontzeptu ekonomiko ezberdinen ezaguera batxilergo lehengo mailan



Iturria: nik prestatutako galdetegiaren datuak.

Ekonomia ortodoxoan ikasten diren kontzeptuak honakoak dira: BPG, langabetuen tasa, ekoizpena, dirua eta burtsa. Aldiz, ekonomia feministak ekarri dituen kontzeptu berriak hauek ditugu: zaintza, etxeko ekonomia, sexuaren araberako lan banaketa, ekonomiaren erreproduktzioa eta jasangarritasuna (azken honek ekono-

mia ekologikoarekin lotura handia daukan arren, ekonomia feministak kontzeptu hau ere berea egin du, bizitzaren jasangarritasuna adierazteko).


Agerian geratzen den moduan, Ekonomia ortodoxoak eta ekonomia feministak plazaratzen dituzten kontzeptuak entzunak dituzten edo ez galdetu zaienean, denek baiezko borobila eman dute ekonomia ortodoxoaren kontzeptuetan. Aldiz, Ekonomia Feministak egindako ekarpenekin zalantzak dituzte. Banan banan; zaintzan %75ak ezetz dio baiezkoa ematen duen %25aren aurrean, etxeko ekonomian, kontrako efektua gertatzen da, %70 baietz dio eta %30ak ezetz, sexu araberako lan banaketan, %75ak ezetz eta %25ak baietz eta, ekonomiaren erreprodukzioan zein jasangarritasunaren kontzeptuetan ia klasearen erdiak ezetz eta beste erdiak baietz dio.

Ikasleen gehiengoak etxeko ekonomiaren inguruan ikasi dutela dio, aitzitik, zaintza eta sexu araberako lan banaketari buruz ez dutela ikasi diote. Erantzun hauek ulergarriak dira, etxeko lanen inguruko kontuak geroz eta gizarteratuagoak eta ikusgarriagoak bilakatzen ari direlako eta, ondorioz, ikastetxeetan honen inguruko kezka ere lantzen da. Ulertzeko kontzeptu erraza da eta aise ikustarazi daiteke. Zaintza eta sexu araberako lan banaketaren kontzeptuek ostera, errotiko lanketa dakartzate, hau da, gizarteratze prozesuetatik eratorritako ondorio bat dela, eta merkatuko ekonomia sostengatzeko beharrezko elementuak direla azaldu behar zaie, eta konplexutasun handiagoa dakar horrek. Azkeneko bi kontzeptuen inguruan, ekonomiaren erreprodukzioa eta jasangarritasuna alegia, erantzunak erdibitzen dira, gutxi gora behera ikasleen erdiak ez dutela entzun dio eta beste erdiak baietz. Honek zergati aunitz izan ditzake, alde batetik, «erreprodukzioa» hitzak «produkzio» hitzarekin zerikusi handia duela izan daiteke, eta ondorioz ikasi duten horrekin lotura duen zerbait pentsatu izatea. Beste alde batetik, «jasangarritasuna» gaur egun modan dagoen hitz bat dela esan daiteke. Arrunta da iragarki zein programa politikoa hitz horren erabilera, beraz, pentsa dezakegu ikasle batzuk horrekin nahastea. Ekonomia Feministak bere proposamenekin osatu eta beste begirada bat ematen baitio jasangarritasunaren gaiari, bizitzaren jasangarritasuna erdigunean jarri hain zuzen ere. Dena dela, klasean jasangarritasunaren inguruan hitz egiteak, ez du zertan esan nahi ikuspuntu ekonomiko batetik bizitzaren jasangarritasuna jartzen denik. Honen guztiarengatik, ikasle batzuk kontzeptu hauek ikasi dituztela pentsa dezakete

Ekonomia Feministaren inguruko kontzeptu eta adiera batzuen inguruan irakasleak emandako garrantziaren balorazioa emateko, jarraian dauden erantzunak jaso dira: (*ikus 3. Grafikoa*).

Ikasleen %70ak pertsonen ongizatea adierazle ekonomikoetan ez dela islatzen dio eta hori klasean ikasi dutela, hau da, irakasleak horren inguruan hitz egin die. Ekonomiaren erdigunean pertsonen bizitza jarri behar dela galdetu zaienean, erantzunak ez dira argiak; ikasleen %40ak «inoiz» edo «batzuetan» ikasi dutela diote eta beste 60ak «nahikoa», «askotan» edo «beti» ikasi dutela azaltzen dute. Sexu arabera-

### 3. Grafikoa: Batxilergo lehenengo mailan, ekonomia feministak ekarritako kontzeptu ezberdinei emandako garrantzia



Iturria: nik prestatutako galdetegiaren datuak.

ko lan banaketan, erantzunak argiak dira, ikasleen % 75ak horren inguruan ez dutela «inoiz» ikasi edo «batzuetan» bakarrik ikasi dutela diote. Zaintza lanak kontuan hartzearen inguruan, ikasleen % 70ak «batzuetan» edo «nahikoa» ikusi dutela diote eta neoliberalismoa eredu ekonomiko bezala ezbaian jartzearen inguruan, % 60ak «inoiz» edo «batzuetan» bakarrik egin dutela dio, aldiz, beste % 40ak «nahikoa», «askotan» edo «beti» zalantzan jarri dutela dio.

Zentzu honetan, kontraesan batzuk agertzen dira aurreko galderarekiko. Adibidez, zaintza lanei dagokionez, aurreko galderan, ez dutela horren inguruan ezer entzun erantzun du ikasleen % 75ak. Aldiz, oraingoan, bakarrik klasearen % 9ak erantzun du ez zaiola «inoiz» garrantzirik eman, gainera, % 60ak «nahikoa», «askotan» edo «beti» erantzun du. Hortaz, ez dauka zentzu handirik inoiz ez entzutea kontzeptu hori baina klasean garrantzia eman zaiola esatea. Izan daiteke, aurreko galderan «zaintza» kontzeptua bakarrik agertzen zelako eta galdera honetan ostera, honen inguruko azalpen txiki bat eman zaie errazago uler zezaten. Horregatik, datuetan kontraesan hau agertzen den arren, orokorrean, irakasleak zaintzarekiko sentsibilitatea aurkezten duela ondoriozta dezakegu. Era berean, datuen arabera, adierazle ekonomikoetan pertsonen ongizatea islatzen ez dela ikasi dute. Gainerako aldagaiei erreparatuz gero, sexu araberako lan banaketaren inguruan, bi galderetan argi geratzen da ez dutela inondik inora horrelako gaien inguruan hitz egin klasean. Bestalde, ekonomiaren erdigunean pertsonen bizitza eta neoliberalismoa ezbaian jartzearen inguruan, erantzunak banatuak daude. Bigarren honetan, esanguratsua da hurrengo galderaren erantzunekin konparatzea; neoliberalismoa ezbaian jartzen dela % 40ak baino gutxiago erantzun du, aldiz, ikasgaiak jarrera kritikoa piztu diela % 75ak erantzun du. Printzipioz, neoliberalismoa ezbaian jartzeak jarrera kritiko bat izatea darama inplizituki, eta ikasgaiaren zatirik handiena ekonomia pentsa-



tzeko korrante honi eskaintzen denez, bietan antzeko erantzuna egon beharko zela pentsa dezakegu. Kasu honetan, baliteke ikasleek ez erlazionatzea neoliberalismoa ikasgaiari ematen duten edukia dela, hau da, neoliberalismoa, marxismoa edo bestelako pentsamenduak bezala ikasi dutela eta ikasgaiari ematen dituzten gainerako gaiak «ekonomia objektiboa» edo «neutroa» dela pentsatzea.

Bestalde, irakasle berdinen ikasleak izanda, klasean zerbait eman bada edo ez galdetuz gero, denek berdina erantzun beharko luketela espero dugu. Hala ere, ezinezkoa da gai guztien inguruan adimen berbera izatea, alde batetik, arreta kontuak daude, baliteke ikasle batzuk kasurik ez egitea eta ez jakitea hori eman duten edo ez eta beraz, ausaz erantzutea, eta beste alde batetik, interesatzen zaizkien gaiak errazago barneratu eta gogoratzen dituzte, gustuko ez dituztenak baino.

Horregatik, galdera hau sexu ezberdinek nola erantzun duten jakitea interesgarria da, izan ere, genero ezberdintasunak oso markatuak dira gaur egun eta honen inguruko ezberdintasunak egon daitezkeela pentsa daiteke. Baliteke, neskek emakume bezala dagozkien gaiekiko sentsibilitate handiagoa adieraztea.

### 1. Taula: ekonomia feministak ekarritako kontzeptuei klasean emandako garrantzia, sexuaren arabera:

Ongizatea adierazle ekonomikoetan						
	inoiz	batzuetan	nahikoa	askotan	beti	Osotara
neska	0	7	11	6	1	25
mutila	0	4	9	11	2	26
Pertsonen bizitza erdigunean jartzea						
	inoiz	batzuetan	nahiko	askotan	beti	osotara
neska	7	9	6	3	0	25
mutila	0	6	10	7	3	26
Sexu araberako lan banaketak emakumeengan duen eragina						
	inoiz	batzuetan	nahiko	askotan	beti	osotara
neska	14	9	2	0	0	25
mutila	5	12	2	5	2	26
Zaintza lanak						
	inoiz	batzuetan	nahiko	askotan	beti	osotara
neska	3	10	10	2	0	25
mutila	2	4	12	5	3	26
Neoliberalismoa ezbaian jartzea						
	inoiz	batzuetan	nahiko	askotan	beti	osotara
neska	1	14	6	4	0	25
mutila	5	10	5	4	2	26

Iturria: nik prestatutako galdetegia-ren datuak.

Taulan agertzen diren datuen emaitzei erreparatuz gero, bai mutilek eta bai neskek erantzun antzekoak eman dituzte. Dena den, hirugarren item-ean «sexu araberako lan banaketak emakumeengan duen eragina», aipatzekoa da, nesken artean, inork ez duela erantzun askotan edo beti ikusi dutela eta, erdia baino gehiagok,


inoiz ez dutela ikasi erantzuten dute. Aldiz, gizonezkoen erantzunak dispersatuagoak daude, nahiz eta, gehiengoak klasean «batzuetan» aipatu dela dioten, % 25ak baino gehiago «askotan» edo «beti» ikusi dutela dio.

Ildo honetatik jarraituz, sexuaren araberako ezberdintasunak zeuden edo ez jakiteko, item bakoitzeko, hau da, aldagai bakoitzeko Kontingentzia taula egiteaz aparte, Pearson-en Chi karratuaren proba egin da. Honen arabera, bi aldagaietan ezberdintasunak daude neskak eta mutilek emandako erantzunen artean, hots, ezberdintasunak daude galdera honi erantzutean emakume edo gizonezko izanda. Bata, «bizitza ekonomiaren erdigunean jartzea» aldagaia da, estatistikoaren balorea 13,18koa da, eta 0,001 signifkazioarekin hipotesi nuluari «ez dago erlaziorik aldagaien artean» uko egiten zaio eta hipotesi alternatiboa onartzen dugu, hau da, «aldagaien arteko erlazioa existitzen dela». Bestea, lehen aipatutako «sexu araberako lan banaketak emakumeengan duen eragina» da, begi bistakoa den bezala, eta estatistikoarekin ziurtatuz, 11,76ko balorearekin eta 0,019ko signifkazioarekin, hipotesi alternatiboa onartzen dugu; «aldagaiak erlazonaturik daude».

Bost aldagaietatik, bitan agertzen dira sexu araberako ezberdintasunak. Bi kasuetan, neskak, mutilak baino ezkorragoak dira aldagai hauei emandako garrantzia baloratzekoan. Era berean, joera hau sexu araberako lan banaketari emandako garrantzia baloratzean nabariagoa da. Lehen esan bezala, interesatzen zaizkien gaiak hobe barneratzen dituzte. Kasu honetan, neskek, gertuagotik bizitzen dituzte sexu araberako ezberdintasun hauek, horregatik, argiago izan dezakete horren inguruan ikasi duten edo ez. Gainera, neskek gai hauekiko sentsibilizazio handiagoa izateko joera dutela esan dezakegu. Orokorrean, neska eta mutilen arteko erantzunak nahiko antzekoak badira ere, neskek irmo handiagoarekin erantzuteko joera agertzen dutela ondoriozta dezakegu.

Helburu honi dagokion azkeneko galderak, ekonomiako ikasgaien gaitasun kritikoa lantzeko aukera izan duten galdetu zaie, honako erantzunak lortuz:

#### 4. Grafikoa: Ekonomia ikasgaiak, jarrera kritikoa pizteko aukera ematen duen edo ez




Iturria: nik prestatutako galdetegiaren datuak.

Jasotako datuen arabera, ikasleen %71ari ekonomia ikasgaiak jarrera kritikoa «nahikoa» edo «asko» piztu die. Kontrari, %29ak «gutxi» edo «erdikoa» erantzun dute.

Bigarren helburua jorrazteko, hau da, «ikasleek ekarpen hauen inguruan ikasteko eta jakiteko grina duten aztertzea», bi galdera osagarri egin zaizkie. Lehendabizikoa, ekonomia feministak kontuan hartzen dituen hainbat gaien inguruko balorazio propioa egitea eskatzen zaie, hots, beraiantzat gai garrantzitsuak diren edo ez. Jarraian, galdera honi dagozkien erantzunak ditugu:

### 5. Grafikoa: ikasleek ekonomia feministak kontuan hartzen dituen gaiak garrantzitsuak ikusten dituzten edo ez



Iturria: nik prestatutako galdetegiaren datuak.

Galdera honetan, hainbat aldagaien inguruan duten interesa aztertu nahi izan da. Gai hauekiko duten interesa baloratu behar zuten, galdetegian aldagai bakoitzaren esanahi edo azalpen txiki bat eman zaie. Guztira sei aldagai dira eta gutxi gora behera Ekonomia Feministak aldarrikatzen dituen gaiak laburbiltzen dira bertan.

Galdetegiak eskaini dizkigun datuetan, ikasle gehienek jarrera positiboa erakusten dute Ekonomia Feministak egindako ekarpenak ikasteko. Dena den, aldagai guztietan «erdikoa» erantzuteko joera esanguratsua dute. Hortaz, jarrera inpartziala erakusten dute aldagai gehienekiko. «Erdikoa» erantzuna alde batera utziz gero, aberastasuna zer den zalantzan jartzea, zaintza eta eredu ekonomikoa zalantzan jartzea aldagaian, ikasleen %40ak agertzen du horretan sakontzeko interesa. Aitzitik, ekonomiaren erdigunean bizitza edo irabazi ekonomikoa jarri behar den galdetzean, sexu araberako lan banaketaren inguruan eta ekonomia sostengatzen duten lanetan sakontzeko interesa erakusten du ikasleen erdiak baino gehiago. Hau guztia


ikusita, orokorrean Ekonomia Feminista ikasteko kuriositatea dutela esan dezakegu. Sei aldagaietatik, hirutan jarrera positiboa baitu ikasleen gehiengoak.

Gainera, hauetako kontzeptu asko erlazionaturik daude, adibidez, zaintza, ekonomia sostengatzen duten lanen artean dago eta orokorrean horrekiko mesfidantza handiagoa erakutsi dute, baina, ekonomia sostengatzen duten lanetan sakonduz gero zaintza lanak eta hauen garrantzia ikasiko lukete. Kontran, esanguratsua ez den arren, kontuan izatekoa da, kasu guztietan ikasleen %15a inguru, kasuak kasu, jarrera ezkorra dutela gai hauekiko.

Azkenik, aurreko galderetako kontzeptuetatik zenbatetan sakontzea nahi zuten galdetu zaie eta ondorengo erantzunak jaso dira:

## 6. Grafikoa: ekonomia feministak planteatzen dituen kontzeptuetan sakontzeko nahia

■ Bat ere ez ■ Bat gutxienez ■ Bi baino gehiago ■ Lau baino gehiago · Denak



Iturria: nik prestatutako galdeetegiaren datuak.

Jasotako erantzunak oso positiboak dira, ikasleen gehiengoak, hau da, %64ak, emandako sei kontzeptuetatik lau baino gehiagotan sakontzeko grina dute bederen. Gainera, ia %90ak bi baino gehiago ikasi nahi ditu, eta honek, aldagaien erdia gutxienez ikasi nahi dutela adierazten du.

Aurreko grafikoan jarrera ezkorra dutela ikusi dugun arren, azkeneko galderaren bitartez, gutxienez ikasleen % 64ak, lau aldagai baino gehiagotan sakondu nahiko luke ekonomiako ikasgaiari. Aipatu dudan moduan, kontzeptu hauek Ekonomia Feministak jorratzen dituen ildo nagusiak laburbiltzen dituzte, hortaz, ikasleen gehiengoak bost edo sei kontzeptuetan sakondu nahi izateak, interes handia agertzen dutela ondorioztatzen du.

Datuen analisiarekin lortutako emaitzak orokorrean ikusita, bi ondorio esanguratsu atera ditzakegu. Alde batetik, ikasleen gehiengoak ados dago Ekonomia Feministaren inguruko gaiak ez dituztela klasean jorratu, beraz, hasierako hipotesia betetzen da. Eta bestalde batetik, orokorrean gai hauen inguruan gehiago sakontzeko interesa erakusten dutela.

## 5. Irakasleen jarrera

Esan bezala, irakasleek Ekonomia Feministak egindako ekarpenak klasean lan-tzen dituzten edo ez jakiteko eta hauek, garrantzitsuak ikusten dituzten edo ez aztertzeko, elkarrizketa sakon batzuetan oinarritu da ikerketa.

Oсотara bi irakasle izan dira elkarrizketatuak, lehenengo izendatzeko ‘1.irakaslea’ etiketa erabiliko da eta bigarrenarentzat ‘2.irakaslea’. Ideia eta planteamendu ezberdinak dituzten bi irakasle izan dira elkarrizketatuak. Lehendabizikoa, Iruñeko eskola katoliko bateko gizona dugu eta bestea ikastetxe publiko batean klase ematen duen emakumea. Zentzu honetan, lehenengo irakasleak ekonomia politikoaren inguruko ikuspegi mugatuagoa daukala esan daiteke eta gaija hezkuntzara bideratzea oso zaila izan da. Bigarren irakaslearekin ordea, elkarrizketa natural eta aberatsagoa egiteko aukera izan da, besteak beste, hausnarketa politikorako alde aurretiko jarrera erakutsi duelako eta honen inguruan hitz egiteko jakintza maila handiagoa agertu duelako.

Elkarrizketak ildo batzuk jarraitzea zen helburua, hala ere, jakina da horrelako elkarrizketetan zaila suertatzen dela elkarrizketatua nahi dugun gaietara bideratzea. Hau kontuan izanda, gutxi gora behera, honako informazioa atera nahi zen: ikasgaija emateko erabiltzen duten materiala zein den, ekonomia alternatiboak erakusteko beharra ikusten duten edo ez, ikasleengan jarrera kritikoa piztea inportantea deritzoten eta ekonomia feministaren ekarpenak ematen dituzten, eta hala ez izatekotan, aurrerantzean ekonomia pentsatzeko gai bezala sartu nahiko luketen. Hala eta guztiz ere, aipatu beharra dago, kasu askotan gaiak nahasten direla erantzuntan, ez baita galdera-erantzun kontu bat izan, solasaldi bat baizik.

Erabiltzen dituzten materialen inguruan, hau da, klasea emateko dituzten estrategia ezberdinen inguruan galdetzerakoan, testu liburuarekiko duten balorazioa ikusi nahi izan da. Azken finean, liburuan agertzen ez diren hainbat material erabiltzeak, testu liburua bera mugatua dagoela adierazten baitu eta bide batez, gaijan sartzeko modu proposa izan da.

Honi lotuta, alde handiak egon dira bi irakasleen artean. Hasteko, klase emateko erabiltzen dituzten estrategien inguruan, lehenengo irakasleak liburua erabiltzen du gehienbat eta material osagarria erabiltzekotan, ekonomiako liburua zaharkituta dagoelako eta beraz, egunerokotasunean ematen diren gaiak erakusteko, prentsa edo internet artikulua erabiltzen ditu. Bere hitzen arabera, «mundu erreala» erakutsi nahi die, dena dela, material osagarri hauek ez ditu ekonomiaren ikuspegi ezberdinak irakasteko erabiltzen, liburuan dagoena eguneratzeko baizik. Bigarren irakasleak ostera, ez du testu libururik erabiltzen, berak sortutako *online* kurtso batez baliatzen da klase emateko. Zentzu honetan, 2.irakasleak, metodologiari garrantzi handia ematen dio eta kontzeptu ezberdinen inguruko ariketa aunitz planteatzen ditu, ikasleen ekimena pizteko eta ikuspuntu ezberdinak elkar trukatzeko.

Material ezberdinak erabiltzeak lotura handia dauka ikuspegi ezberdinak erakustearekin eta horrek, ezinbestean jarrera kritikoa piztea ahalbidetzen du. Ekonomia-erikiko begirada ezberdinak daudela erakusten bazaie, ez dute neutroa den zerbait bezala hartuko, kritikak eta eztabaidak sortzen dituen zientzia bezala ikasiko dute alegia.

Ildo horretatik, bi irakasleek, ikasleek euren iritzi propioa garatu behar dutela uste dute. Hala ere, lehenengo irakasleak ez dio ñabardura politikoa jartzen iritzi propio horri, pentsatzen dutena arrazoitu behar dutela dio soilik, zertzelada moduan aipatzen du. Gainera, ez du ikasleen pentsatzeko gaitasunean gehiegi sinesten, irakasleak esaten dioten edozer gauza sinesten dutela baitio. Bigarrenak aldiz, ekonomia zientzia politikoa dela erakusten du hasieratik bere ikasgaietan eta berezko garrantzia ematen dio horri. Ondorioz, jarrera kritikoa modu ezberdinetan ikusten dela agerian geratzen da eta, ikerketa honen gai nagusiari begira, ikastetxeetako irakasleen artean ekonomia hegemonikoa kritikatzeko ezberdintasunak daudela esan daiteke, alde batetik, ekonomia klasikoari kritika zuzena egiten diotenak eta gauza batzuk beste modu batera egin daitezkeen arren, sistema ekonomikoa neutrotzat hartzen dutenak.

Honi jarraiki, alternatiba ekonomikoak klasean lantzen dituzten edo ez ezagutu nahi izan da eta hemen ere ezberdintasunak aurkitu dira. Lehenengo irakasleak adibidez, dirua egiteko beste modu batzuk daudela azaltzen die ikasleei, ez dela zertan beti aberasteko helburuarekin egin behar, kasu askotan gizartea laguntzeko egiten dela, sarritan, dirua lortzea ez dela garrantzitsuena eta baloreak aurretik daudela. Gauza bera egiteko aukerak edo alternatibak planteatzen dizkie, baina ez du ekonomiaren errotiko aldaketa aipatzen. Bigarren irakasleak ostera, argi eta garbi uzten du ekonomia sustraietatik aldatu behar den zientzia dela, eta bere burua ekonomia klasikoa ematera behartua ikusten duen arren, ekonomia pentsatzeko eta ikusteko forma ezberdinak klasean ematea ezinbestekotzat hartzen ditu. Gainera, ekonomia zientzia neutrotzat agertzearekiko kezka handia erakutsi du eta hori ekiditeko alternatiba ekonomikoak eraiki eta ikasteari garrantzi handia ematen dio. Beraz, kasu honetan ere, bigarren irakasleak sakonago tratatzen du gaia, eta lehenengoak aldiz, ez du eredu politiko-ekonomikoari buruz hitz egiten.

Hau horrela izanda, gai hauek klasean lantzeko garrantziari buruz galdetu zaie-nean, lehendabizikoak ez du ikusten hezkuntzak ikasleengan eragin dezakeenik, hau da, bera irakasle bezala gai hauen inguruan hitz egiteak, ez dituela gauzak aldatuko, kalean edo gizartean ikusten dutenean hartuko baitute benetako kontzientzia. Bigarrenak aldiz, ezinbestekoa ikusten du klasean honen inguruan egin daitezkeen lana eta ikasleen kontzientziario ezinbestekoa ikusten du aldaketarako. Berebiziko garrantzia ematen dio klasean begirada ekonomiaren ikuspegi ezberdinen inguruan jarduteari.

Ekonomia begiratzeko aukera ezberdinen aurrean duten iritzia eta, klasean plazaratzen duten edo ez galdetu ondoren, ekonomia feministak egindako ekarpenen

inguruan galdetu zaie. Batez ere, zaintza lanak, etxeko ekonomia eta sexu araberako lan banaketari buruzko elkarrizketak bideratuz. Hauekiko duten iritzia ezagutzeaz gain, klasean emateko beharra ikusten duten ere ikusi nahi da.

Zentzu honetan, zaila egin da *1. irakasleak* Ekonomia Feministak egindako ekarpenak hezkuntzarekin lotu zezan, hots, hauen inguruko iritzia ematen du baina ikasgairako aplikazioa gutxitan aipatzen du. Dena den, Ekonomia Feministaren ekarpenei dagokionez, ikuspegi antzekoa dute etxeko lanen eta zaintzaren inguruan. Biek garrantzitsuak ikusten dituzte ekonomiaz hitz egiten dugunean eta klasean horren inguruko hausnarketak planteatzen dituzte.

Gainera, sexu araberako lan banaketaren inguruan hitz egiterakoan, bien kasuan, genero ezberdintasunaren gaia atera da. Besteak beste, gizon eta emakumeen soldaten arteko ezberdintasunak edo gizon zein emakumezkoei modu sistematiko batean esleitzen zaizkien lanak daudela ikusten dute biek eta, *2. Irakaslearen* kasuan ere, «emakumezkoen» lanen baliogabetzea eman dela aitortzen du.

Zentzu horretan, lehenengo irakasleak, hezkuntzan berdintasunean bizi garela aitortzen du eta egoera pertsonalengatik berdintasunean bizi izan dela eta beraz, klasean ez dio hainbestera garrantzirik eman genero ezberdintasunagatik ematen den sexu araberako lan banaketari. Gainera, gauzak aldatzen ari direla helarazten die ikasleei, adibidez, Unibertsitateetan geroz eta emakume gehiago daudela esanez. Irakasle honek emakumeek eta gizonak gizartean betetzen ditugun rola oso barneratuak dituela esan daiteke, eta naturala den zerbait bezala ulertzen ditu. Bere usteetan, emakumezkoenak eta gizonezkoenak diren lanak daude, eta munduan egoteko forma ezberdinak ditugulako ematen dela dio, hau da, ez du pentsatzen sozializazio prozesu dikotomiko baten ondorioa denik. Bere hitzetan, «emakumezkoek haurrekin egotea nahiago dute, horregatik ez dute goi mailako postuetan egoteko pizgarririk ikusten». Hala ere, gizonezkoen eta emakumezkoen lanak daudela aitortzen du eta gizonezkoenak kasu askotan gehien baloratzen direnak direla.

Gogoeta hauek ikusita, nahiko zaila da sinesmen hauek dituen irakasle batek, ekonomia feministak egiten dituen ekarpenak ikuspuntu feminista batetik egitea. Beraz, gai hauek lantzen dituen arren, modu neutro eta lau batean egiten duela ondoriozta dezakegu, ezberdintasun hauek suposatzen duten haustura eta erroari erreparatu gabe.

Bigarren irakasleak, zalantza gehiago adierazi ditu gizonezko eta emakumezkoen ezberdintasunari begira. Alde batetik ezberdinak garela ziurtatzen du, baina hezkuntza eta sozializazio kontua direla ere ikusten du. Bestetik, emakumeei dagozkien lanak oso markatuak direla adierazi du behin eta berriro eta gizonezkoenak normalean baloratuagoak diren goi mailako postuak dituztela aitortu du. Honekin batera, *2. irakaslearekin* izandako elkarrizketan, androzentrismoaren gaia atera da. Gizonezkoen mundu batean bizi garela argi eta garbi uzten du irakasle honek. Beraz, gizarte eta ekonomia eremuan duen garrantzia atzematen duela adierazten du. Zentzu honetan, gizarteratzeko eredu maskulinoa eta femeninoa agertu dira, eta boteredun

lan postuen inguruan, emakumeek hartu duten eredu maskulinoa jorratuz. Gaur egun botere postuetan dauden emakumeek eredu maskulinoa jarraitzen dutela pentsatzen du eta klasean honen inguruko eztabaidak planteatzen ditu. Beraz, feminismoarekiko kontzientzia duen irakaslea dela ikusi daiteke eta hori ezinbestekoa da Ekonomia Feministak egin dituen ekarpenak klasean ongi azaltzeko.

Ezinbestekoa da androzentrismoaren nozioa barneratua izatea sexu araberako lan banaketa behar bezala ulertzeko, horregatik, *1. irakasleak* ez du hain argi azaldu lan banaketaren erroa zertan datzan eta ondorioz, zaila da ikasleei kontzeptu hau irakastea.

Azkenik, «feminista» hitzak sortzen dien arbuioaz mintzatu izan gara. Lehen-dabizikoak ez du gustuko hitz hori erabiltzea konnotazio negatiboak dituelako eta honek, agerian uzten du feminismoaren inguruan duen jakintza eza, eman dituen argudioen arabera, feminismoa matxismoarekin parekatzen baitu. Ekonomia Feministak egiten dituen ekarpenak ongi ikusten ditu baina feminista hitzak genero araberako botere harremanei buelta ematea dakarrela uste du. Beraz, klasean kontzeptu hauen inguruan mintzatzeko den arren, ez du Ekonomia Feministaren ekarpenak direnik esango, hau da, orain arte egiten zuen moduan jarraituko ditu klasean. Bigarren irakasleak aldiz, honen inguruan sakontzeko grina azaldu du eta gaur egungo ekonomia ulertzeko begirada interesgarria dela deritzo, ekonomia ekologikoa, humanista eta feministarekin batera, bere web orrirako gai berri bat osatu duela adierazi baitu.

Modu labur batean esanda, elkarrizketatutako irakasleek sentsibilitate politiko-ekonomiko ezberdinak adierazi dituzte. Lehenengoak, ez du ekonomiaren errotiko aldaketan sinesten eta ez du horri buruzko informazio gehiegirik jaso. Era berean, feminismoarekiko hurbiltasun gutxi agertzen du eta horrek ere gizarteratze prozesuen inguruan hausnartu ez duela uzten du agerian. Beraz, ez du Ekonomia Feminista landuko klasean. Bigarren irakasleak ordea, jarrera iraultzaileagoa adierazi du, gainera, gai politiko-ekonomikoetan adituagoa dela ere esango nuke eta horrek gauzak perspektiba zabalago batekin ikustea ahalbidetzen dio.

## 6. Amaierako hausnarketak

Esan bezala, galdetegitik ateratako ondorioz orokor eta esanguratsuenak, ikasleek Ekonomia Feministaren inguruan ikasten ez dutela izan da. Gainera, Ekonomia Ekologikoaren inguruan ere ez dute ideia aunitz jaso. Hortaz, ekonomia klasikoa ikasten dutela esan dezakegu eta ondorioz, ez dituzte lantzen gaur egungo sistema ekonomikoa ezbaian jartzen dituzten korrante ideologiko, politiko eta ekonomikoko ezberdinak.

Nafar Gobernuak adostutako *curriculum*-ean, ikasleen jarrera kritikoa piztea dugu *ekonomia* ikasgaiaren helburuetako bat. Ildo honetatik, ikasleen jarrera kritikoa bultzatzeko, pentsamendu ekonomikoen inguruan eztabaidan dauden korrante ezberdinak erakutsi behar zaizkie, informaziorik ezean, ezinezkoa baita



gauzak kolokan jartzea. Era berean, gaur egungo ekonomiari begira, ekonomialari klasikoen teoria eta ekarpenak eraberritu dituzten pentsamolde berriak plazaratzea, sistema ekonomikoarekiko jarrera kritikoa sortzeko funtsezkoa bilakatzen da. Jaki-na baita ekonomia ez dela zientzia neutroa eta pertsonen bizitza sozioekonomikoan desorekak sortzen dituela. Horregatik, Ekonomia Feministatik egindako ekarpenak lantzeak hezkuntzan dituen inplikazioak nabarmendu nahi dira.

Ikerketan zehar aipatu den bezala, *ekonomia* ikasgaiko testu liburuak oso muga-tuak dira eta irakaslearen eskuetan geratzen da material eta eduki berriak sartzea. Beraz, ikerketa osatzeko ezinbestekoa izan da irakasleekin elkarrizketatzea. Zentzu honetan, galdetegia erantzun duten ikasleen irakaslea elkarrizketatu da, ikasleek erantzundakoa eta irakasleak esandakoa bat egiten duten jakiteko eta irakaslearen irakaskuntza estrategietan gehiago sakontzeko. Horrela, irakasle honek etxeko ekonomia, zaintza edo sexu araberako lan banaketaren inguruan zertzelada batzuk ematen dituen arren, agerian geratzen da ez duela ikuspegi feminista batetik egiten eta ez duela inondik inora feminista hitza erabiltzen bere klasean. Besteak beste, ez du Ekonomia Feministaren inguruko ezagutarik eta ondorioz, ezinezkoa da eremu akademiko eta politiko honetatik egindako ekarpenak klasean ematea. Hortaz, ikasleengandik aurreikusten ziren emaitzak jaso dira, praktiketan behatutakoaren arabera, irakasle horrek ez baitu gai hauekiko ardurarik erakutsi.

Honekin batera, elkarrizketatu ditudan irakasleen artean ezberdintasun nabariak aurkitu dira eta, Nafarroako ikastetxeetan dagoen aniztasunaren adierazle izan dela esan daiteke. Aurrekoarekin lotuta, ikasleek ikasten dutenarekin zuzeneko lotura daukala ikusi da, hau da, sentsibilitate handiagoa eragiten dieten gaiak klasean ematen dituzte eta alderantziz. Era berean, irakasleek duten ideologia politikoa klaseetan islatzen da eta zentzu honetan, ekonomia politikoa dela onartzen badugu, garrantzi handiagoa emango diete ekonomia klasikoari, edo gaur egun geratzen ari diren ekonomia kritikoei, euren ideologiaren arabera. Bestalde, ikasleek gai hauen inguruan sakontzeko grina adierazi dute datuen analisaren emaitzetan. Beraz, zaintza, sexu araberako lan banaketa eta bizitza erdigunean jartzen duen ikuspegi ekonomikoarekiko ardura erakusten dute. Hau da, testu liburuetan eta ekonomia ortodoxoan ikus ezinak diren aspektuak azalarazteko eta horien inguruan eztabai-datzeko asmoa dutela erakutsi dute. Horregatik, pentsatzen dezakegu, ikerketa hau baliagarria izan daitekeela *ekonomia* ikasgaiaren curriculum-ean ekonomia feminis-tak eta ekonomia ekologikoak egin dituzten ekarpenak sartzeko, modu honetan, ekonomia modu zabal batean ikasteko aukera izanen dutelako.

Modu berean, egindako ikerketarekin, eta batez ere irakasleei egindako elkarriz-ketei esker, feminismoak gizartean duen harrera kontrajarriak egiaztatzeak aukera izan da. Esanguratsua da, feminismoa eta matxismoa maila berdinean kokatzen dituen irakasle batekin topo egitea, honek erakusten baitu, feminismoa matxis-moarekin parekatzen jarraitzen duen gizartearen sektore bat dagoela, eta hori kez-kagarria da, aldaketaren bidean ezinbestekoak izan baitira mugimendu feminista-

tik egindako ekarpenak. Zentzu honetan, irakasleen paperak berebiziko garrantzia dauka, haiek baitira ikasleen ezagutza eta baloreetan parte hartzen duten eragilerik garrantzitsuenetarikoak. Beraz, berdintasunean eta guztion askatasunean oinarritzen den gizarte bat eraiki nahi badugu, ezinbestekoa dugu onartzea eta ikustaraztea feminismotik, alor ezberdinetan eman diren pausoak ikasgeletan islatzea, bertatik aterako baitira gizartea mugituko duten belaunaldi berriak.

Halaber, ikerketak aurkezten dituen hainbat muga aipatu behar dira. Alde bate-tik, galdetegia erantzuteko eta elkarrizketatzeko hartutako laginak oso txikiak dira eta ikasleen kasuan, oso homogeneousoa, eta beraz, ateratzen diren ondorioak ezin dira gizarteratu. Hala ere, ikasgai baten edukien garapenean curriculum-ak duen pisua kontuan hartuz gero, orokorrean, lortutako emaitzak espero daitezke, irakaslearen erantzukizuna baita Ekonomia Feministaren inguruko edukiak ematea, eta horrek, ekonomia kritikorekiko eta feminismoarekiko sentsibilitatea eskatzen du. Beste alde batetik, aurretik esan bezala, ikasleek ematen dituzten erantzunak, hainbat faktoreengatik, ezin dira guztiz fidagarriak izan. Besteak beste, kontzeptu berriak ikasitakoekin nahasten dira eta «ongi geratzeko» helburuarekin erantzun dituztela aitortzen dute, beste asko nahasten dituzte eta orokorrean galderak nahiko gainetik erantzuten dituzte. Horregatik, zaila da galdetegi batekin ondorio esanguratsuak ateratzea. Bestalde, ikerketa aurrera egin ahala, interesgarria izan da, ikasle talde bakoitzaren irakaslea elkarrizketatzea, horrela, ikasleen erantzunak eta euren irakasle-  
leenak konparatu baitaitezke, irakasleek irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan duten garrantzia ikusteko.

Amaitzeko, ikerketa honekin Ekonomia Feministak egin dituen ekarpenak ekonomia ikasgaietan lantzeak duen garrantzia azpimarratu behar da, eta emaitzak ikusita, ikastetxe bateko ikasleen gehiengoak gai hauetan sakondu nahi duela ikusita, interesgarria litzateke ildo honetatik ikertzen jarraitzea eta, emaitzek horrela islatzen badute, testu liburuen berrikuspena eta Ekonomia Feminista aintzat hartzen dituzten proposamenak sartzea. Behintzat, irakasle batek bere web orrian Ekonomia Feminista eta Ekologikoari tartetxo bat eskaintzeko baliagarria izan da ikerketa hau eta aurrerantzean gai honekin loturiko ikerketa gehiago iradokitzeke eta ideia berriak sortzeko baliagarria izatea espero da.

## NOTAS

1. Artxanko, 2015.
2. Rodríguez Enriquez, 2010.
3. P. Orozco, 2014b.
4. *Idem*.
5. Carrasco, 2005.
6. Heteropatriarkatuaren kontzeptua ekonomian duen garrantzia ikusteko: P. Orozco, Amaia (2014b, 166-183 o.a.)
7. P. Orozco, 2014a.
8. Carrasco 2009, P. Orozco 2014b, León T. 2009, Laboratorio Feminista, 2006.
9. J. A. Nelson, 1995.
10. P. Orozco, Amaia (2014b, 36-51 o.a.)
11. Agenjo, 2011.
12. Androzentrismoa: gizonezkoen ikuspuntuan oinarritzen den gizarte harremanen eta munduaren begirada da. (R.A.E.)
13. Zentzu honetan, ekonomia feministak, ekonomia ortodoxoaren antolaketa iceberg batean irudikatzen du, non produktiboa eta merkatuarena dena agerian dagoen izotz punta den, eta azpian geratzen den izotz zati handiena eta ikusten ez dena, esfera pribatuan ematen diren lanak geratzen diren. Honetan sakontzeko ikus: Laboratorio Feminista (2006, 237-244 o.a.)
14. Agenjo, 2011.
15. Aurrerago azalduko da feministek aldarrikatzen duten kontzeptu hau, non kapitala eta bizitza, bata bestearen aurka dauden. Ekonomia ortodoxoak kapitalaren akumulazioan jarri izan du erdigunea eta horrek bizitza erdigunean jartzearekin egiten du talka.
16. P. Orozco 2014b.
17. Carrasco, 2006.
18. Honen inguruan sakontzeko ikus: Alberto Acosta, 2013.
19. P. Orozco, Amaia.(2014b, 228 o.a.). «Hemen “buen vivir” erabiltzen dugu baina beste espresio batzuekin tartekatzen da, besteak beste, ongi bizitzea, bizitzea merezi duen bizitza, etab.»
20. Herrero, Y. (2014, 219-237 o.a.) interdependen-tziaz eta kodependen-tziaz mintzo da.
21. Brialess, A. (2013, 153-179 o.a) artikuluan, Roswitha Scholz-ek kapitala eta bizitzaren kontraesanaren inguruko teoriaren azalpen laburtua ematen du.
22. Carrasco, 2005.
23. Razavi, 2007.
24. Hemen sexu-genero sistemaren eraikuntza gogoratu behar dugu. Gizonezko edo emakumezkoen genitalak, hau da, ezaugarri biologikoak ditugun heinean, maskulinitatean edo feminitatean sozializatuak gara. Honen inguruan mintzo dira bestak beste (Mosteiro, 1997; Martínez y Bonilla 2000; López-Zafra y López-Sáez, 2001).
25. Carrasco, 2005.
26. Morini, 2014.
27. Morini, 2014.
28. León T., 2009.
29. Federici, 2014.
30. León T., 2009.
31. Rodríguez Enriquez, 2010.
32. Razavi, 2007.
33. Hochschild-en adibide batekin azaltzen dute kontzeptua: (1) familia pobre bateko alaba helduenak bere neba-arrebak zaintzen ditu, (2) bere amak haur zaindari moduan lan egiten du, (3) herri aberats batean haur zaindari lanetan dabilen emakume emigrantearen seme-alabekin.
34. P. Orozco 2010.
35. León T., 2009.
36. Carrasco, 2006.
37. Maceira Ochoa, 2006.
38. 49/2008 FORU DEKRETUA, maiatzaren 12koa, Nafarroako Foru Komunitatean batxilergoko ikasketen egitura eta curriculum a ezartzen dituen a. 6. artikulua: zeharkako gaiak.
39. Lopez Padina, 1997.
40. Subirats, 1998.
41. Joan W. Scott, 1998.
42. Bosch, Ferrer, Riera eta Alberdi, 2013,
43. Marilyn J. Boxer-en, 1998.
44. Hooks, 1994.
45. 49/2008 FORU DEKRETUA, maiatzaren 12koa. Nafarroako Foru Komunitatean batxilergoko ikasketen egitura eta curriculum a ezartzen dituen a.
46. Honetan gehiago sakontzeko ikus: Bazán, Domingo, 2002.
47. Ikusi S. Valles M. (1997, 109-279 o.a.).
48. Ekonomia ortodoxoaren kontzeptua erabiliko dut, orain arte ekonomia pentsatzeko modu hegemoniko eta androzentrikoari buruz mintzatzeko.
49. Ekonomia ekologikoaren inguruan bigarren mailako ikasleek duten jarrera aztertzeko, ikusi Salaberri (2015) eginiko ikerketa, Nafarroako ikastetxe bateko egoera oinarritzat harturik.
50. Ikusi: Mc Graw Hill. *Economía Bachillerato*. 2. Gaia (27-40 o.a.)
51. Psikologoek «deseabilidad social» edo «gizarte desiragarritasuna» kontzeptuarekin deitzen dute fenomeno hau.

## BIBLIOGRAFÍA

- Acosta, A. (2013): *El buen vivir: Sumak Kawsay, una oportunidad para imaginar otros mundos*. Ecuador.
- Agénjo Calderón, A. (2011): Lecturas de la crisis en clave feminista: una comparación de la literatura en torno a los efectos específicos sobre las mujeres. *Papeles de Europa*, (23). [http://revistas.ucm.es/index.php/PADE/article/view/37936-tik\\_lortua](http://revistas.ucm.es/index.php/PADE/article/view/37936-tik_lortua).
- Arriagada I. eta Rosalba T. (2012): *Cadenas Globales de Cuidados: el papel de las migrantes peruanas en la provisión de cuidados en Chile*. ONU Mujeres. Santiago de Chile.
- Artxanko Aleixandre, Patricia (2015): *Ekonomia Feminista Batxilergo Lehenengo mailan*. Master Amaierako Lana. Iruñea.
- Bazán, Domingo. (2002): *Pedagogía social y pedagogía crítica: nexos y fundamentos básicos*, Paulo Freire. Revista de pedagogía crítica (1). <http://bibliotecadigital.academia.cl/bitstream/handle/123456789/1609/049-061.pdf;jsessionid=E5F5F8E58EB7735BAAD94BB6CC7992F80?sequence=1> -tik lortua
- Bosch, E., Ferrer V., Riera, T. eta Alberdi, R. (2003): *Feminisme a les aules: Teoría y praxis de los estudios de género*. Bartzelona.
- Briales, A. (2013): «Para una crítica de todos los trabajos: la teoría de la escisión entre las críticas feministas del capitalismo», *Encrucijadas*. Revista Crítica de Ciencias Sociales (7), pp. 153-179. [http://www.encrucijadas.org/index.php/ojs/article/view/29-tik\\_lortua](http://www.encrucijadas.org/index.php/ojs/article/view/29-tik_lortua).
- Briskin, L., y Priegert Coulter, R. (1992): «Feminist Pedagogy: Challenging the Normative (Introduction)». *Canadian Journal of Education*, 3. (247-263.o.a.) [http://www.csse-scee.ca/CJE/Articles/FullText/CJE17-3/CJE17-3-01Briskin.pdf-tik\\_hartuta](http://www.csse-scee.ca/CJE/Articles/FullText/CJE17-3/CJE17-3-01Briskin.pdf-tik_hartuta)
- Carrasco, C. (2005): «La economía feminista: una apuesta por otra economía». Vara, M<sup>a</sup> Jesús (koord.), *Estudios sobre género y economía* liburuan. 43-62 (o.a.). Madril.
- (2009): «Mujeres, sostenibilidad y deuda social». *Hezkuntza Aldizkaria*, (169-191 o.a.) [http://www.revistaeducacion.mec.es/re2009/re2009\\_08.pdf-tik\\_lortua](http://www.revistaeducacion.mec.es/re2009/re2009_08.pdf-tik_lortua).
- Federici, S. (2014): *Calibán y la bruja: mujeres, cuerpo y acumulación originaria*. Traficantes de Sueños. Madril.
- Herrero Y. (2014): «Economía ecológica y economía feminista: un diálogo necesario». Cristina Carrasco (ed.). *Con voz Propia: la economía feminista como apuesta teórica y política* liburuan (219-237, o.a.). Madril.
- Laboratorio Feminista (2006): *Transformaciones del Trabajo desde una perspectiva Feminista. Producción, reproducción, deseo, consumo*. Tierra de nadie edizioak. Madril.
- León T. Magdalena (2009): Cambiar la economía para cambiar la vida, Acosta A. y Martínez E. (comp.), *El buen vivir: una vía para el desarrollo*, Ed. Abya-Yala. Quito.
- López-Zafra, E. eta López-Sáez, M. (2001): «Por qué las mujeres se sienten más o menos femeninas y los hombres más o menos masculinos. Explicaciones sobre su autoconcepto de identidad de género». *Revista de psicología social*, 16 (2), (193-207 o.a.).
- López Pardina, M<sup>a</sup> T. (1997): «El género en los temas transversales de la educación secundaria». Alario Trigueros T. eta García Colmenares C. (koord) *Persona, género y educación* liburuan. Ed. Amarú. Madril.

- Maceira Ochoa, Luz María (2006): «Más allá de la coeducación: pedagogía feminista». [http://www.academia.edu/3348187/M%C3%A1s\\_all%C3%A1\\_de\\_la\\_coeducaci%C3%B3n\\_pedagog%C3%ADa\\_feminista-tik\\_lortua](http://www.academia.edu/3348187/M%C3%A1s_all%C3%A1_de_la_coeducaci%C3%B3n_pedagog%C3%ADa_feminista-tik_lortua).
- Martínez Benlloch, I. y Bonilla Campos, A. (2000): *Sistema sexo/género, identidades y construcción de la subjetividad*. (51-61 o.a.). Balentzia.
- Morini, Cristina (2014): *Por amor o a la fuerza: feminización del trabajo y biopolítica del cuerpo*. Traficantes de Sueños. Madrid.
- Mosteiro García, M. J. (1997): «El género como factor condicionante de la elección de carrera: hacia una orientación para la igualdad de oportunidades entre los sexos». *Revista galego-portuguesa de psicología e educación*. [http://ruc.udc.es/bitstream/2183/6622/1/RGP\\_1-28.pdf-tik\\_lortua](http://ruc.udc.es/bitstream/2183/6622/1/RGP_1-28.pdf-tik_lortua).
- Nelson, Julie A. (1995): «Feminismo y economía». *Journal of Economic perspectives*, vol. 9 (2). [http://www.ase.tufts.edu/gdae/about\\_us/cv/nelson\\_papers/nelson\\_feminismo\\_y\\_economia.pdf-tik\\_hartua](http://www.ase.tufts.edu/gdae/about_us/cv/nelson_papers/nelson_feminismo_y_economia.pdf-tik_hartua).
- Pérez Orozco, A. (2005): «Economía del género y economía feminista, ¿conciliación o ruptura?», *Revista Venezolana de Estudios de la Mujer*, vol. 10 (24). (43-64 o.a.). [http://saber.ucv.ve/ojs/index.php/rev\\_vem/article/view/2247-tik\\_lortua](http://saber.ucv.ve/ojs/index.php/rev_vem/article/view/2247-tik_lortua).
- (2010): *Cadenas Globales de cuidado ¿Qué derechos para un régimen global de cuidados justo?* ONU Mujeres. Santo Domingo. [http://mueveteporlaigualdad.org/publicaciones/derechosparaunregimenglobaldecuidadosjusto\\_2010.pdf-tik\\_lortua](http://mueveteporlaigualdad.org/publicaciones/derechosparaunregimenglobaldecuidadosjusto_2010.pdf-tik_lortua).
- (2014a): «Del trabajo doméstico al trabajo de cuidados». Cristina Carrasco (ed.). *Con voz Propia: la economía feminista como apuesta teórica y política* liburuan. Viento sur (49-73 o.a.). Madrid.
- (2014b): *Subversión feminista de la economía: aportes para un debate sobre el conflicto capital-vida*. Traficantes de Sueños. Madrid
- Razavi, Shahra(2007): *Political and Social Economy of Care in a Development Context: Conceptual issues, Research Questions and Policy Options*. Gender and Development Programme Paper, num. UNRISD. [http://www.unrisd.org/80256B3C005BCCF9/%28httpAuxPages%29/2DBE6A93350A7783C12573240036D5A0/\\$file/Razavi-paper.pdf-tik\\_lortua](http://www.unrisd.org/80256B3C005BCCF9/%28httpAuxPages%29/2DBE6A93350A7783C12573240036D5A0/$file/Razavi-paper.pdf-tik_lortua).
- Rodríguez Enriquez, C. (2010): *Análisis económico para la equidad: los aportes de la economía feminista*. SaberEs. (2). [http://www.saberes.fcecon.unr.edu.ar/index.php/revista/article/view/31/62-tik\\_lortua](http://www.saberes.fcecon.unr.edu.ar/index.php/revista/article/view/31/62-tik_lortua).
- Salaberri Irungarai, G. (2015): «Economía Ecológica Nafarroako Bigarren Hezkuntzan: Ikasle eta irakasleen jarrera». *Geronimo de Ustariz Aldizkaria*, 30. Iruñea.
- Scott, J. (1992): «Igualdad versus diferencia: los usos de la teoría postestructuralista». Lamas, Marta (comp.), *Ciudadanía y feminismo, Debate Feminista*, UNIFEM-Instituto. [http://mujeresdelsur.org/sitio/images/descargas/gtps\\_scott\\_unidad\\_1.pdf-tik\\_lortua](http://mujeresdelsur.org/sitio/images/descargas/gtps_scott_unidad_1.pdf-tik_lortua).
- S. Valles M. (2012): «Técnicas cualitativas de investigación social». [http://academico.upv.cl/doctos/ENFE-4072/%7B0156537F-94C8-43CF-B91A\\_6ABB5550C70F%7D/2013/S2/IT\\_Valles\\_Tecnicas\\_cualitativas.pdf-tik\\_lortua](http://academico.upv.cl/doctos/ENFE-4072/%7B0156537F-94C8-43CF-B91A_6ABB5550C70F%7D/2013/S2/IT_Valles_Tecnicas_cualitativas.pdf-tik_lortua)
- Subirats, M. (1998): *La educación de las mujeres: de la marginaliad a la coeducación: propuestas para una metodología de cambio educativo*. Naciones Unidas. Santiago de Chile.
- 49/2008 FORU DEKRETUA, maiatzaren 12koa, Nafarroako Foru Komunitatean batxilergoko ikasketen egitura eta curriculumaz ezartzen dituenaz. [http://www.navarra.es/home\\_eu/Actualidad/BON/Boletines/2008/70/Anuncio-3/-tik\\_lortua](http://www.navarra.es/home_eu/Actualidad/BON/Boletines/2008/70/Anuncio-3/-tik_lortua).

## RESUMEN

Este trabajo se centra en el estudio de las aportaciones realizadas desde la Economía Feminista en primero de bachillerato. Con la participación de 53 estudiantes de un centro y dos profesores/as de otros centros de Iruñea-Pamplona, se realiza un análisis cuantitativo y cualitativo para conocer, por un lado, si en la asignatura de *Economía* se estudia toda la economía invisibilizada que saca a la luz la Economía Feminista y, por otro lado, saber si tanto los/as estudiantes como los/as profesores tienen interés en profundizar más en estos temas. Los resultados muestran que los planteamientos que ofrece la Economía Feminista no se trabajan en el aula, y que en general, los/as alumnos/as tienen interés en saber más sobre estos temas. Así mismo, los/as profesores/as entrevistados/as reconocen dar estos temas por encima, pero no lo hacen desde una perspectiva feminista.

**Palabras clave:** cuidados, división sexual del trabajo, reproducción, economía feminista, educación

## LABURPENA

Lan hau Ekonomia Feministak egindako ekarpen teorikoak batxilergo lehenengo mailan jorratzen diren ezagutzeko ikerketa batean oinarritzen da. Iruñeko ikastetxe bateko 53 ikasle eta beste institutuetak bi irakasleren parte hartzearekin, analisi kuantitatibo eta kualitatibo baten bitartez, alde batetik, *Ekonomia* ikasgaiari Ekonomia Feministak azaleratzen duen ezkutuak ekonomia klasean lantzen den eta, bestetik, bai ikasle zein irakasleek gai hauen inguruan sakontzeko grina duten aztertzen da. Emaitzek agerian uzten dute, Ekonomia Feministak planteatutako teoriak ez direla klasean lantzen, eta orokorrean, ikasleek hauen inguruan gehiago ikasteko nahia dutela. Aldi berean, irakasleek gai hauek gainetik lantzen dituztela aitortzen dute, baina ez dute feminismoaren ikuspuntutik egiten.

**Hitz gakoak:** zaintza, sexu araberako lan banaketa, erreprodukzioa, ekonomia feminista, hezkuntza

## ABSTRACT

This work is based on a study of the treatment of the contributions of feminist economics in the penultimate year of high school. The research focuses on two parts. The first one, aims to analyse whether hidden economy that Feminist Economics reveals is studied or not in economy class. And secondly, the willingness of both, students and teachers, to delve into this topic is analysed. 53 students and two teachers of other high schools have collaborated.

Results show not only that theories raised by Feminist Economics are not studied in class, but also the generalised willingness of the students to know more about them. At the same time, teachers admit not to go too deep into the matter and not to work on it from a feminist point of view.

**Key words:** caring, work distribution by sex, reproduction, feminist economics, education